





## Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




<b>absentzia</b> falta, hutsunea	Joxemiri iruditzen zitzaion ez zela gauza izango bere emaztearen <b>absentzia</b> bi esalditan azaltzeko.	72
<b>adeitsu</b> begirunez, errespetuz	Bai?, esan zuen emakume gazteak, oso modu <b>adeitsuan</b> .	36
<b>afera</b> kontua, auzia	...bazegokion Jonan semearen bihotz suntsituaren <b>aferan</b> parte hartzea...	138
<b>ahapaldi</b> poema zatia, estrofa	Poema txar baterako <b>ahapaldi</b> eskasak bestela ez zirelakoan...	106
<b>ahobero</b> harroputza, gangarra	...halako aldarte <b>ahobero</b> eta garrasizale bat, besteen bizkar ozenki barre egitea maite duela...	14
<b>aingura</b> itsasontzien euskarria	Gerardek <b>aingura</b> bota zuen eta besteak hasi ziren nor bere neoprenoa eskuetan hartzen.	54
<b>aldamenean</b> alboan, ondoan	Joxemik ulertu zuenez, <b>aldamenean</b> baitzeukan atezainak Luus momentu hartan, ez?	135
<b>aldarte</b> umorea, gogaldia, jarrera	...bestela bere <b>aldarte</b> a behin eta berriro sutzekoa zelako...	27
<b>aldats behera</b> jaitsierako aldapa	Zulo edo kobazulo batean amaitu behar ez duen Manresarako <b>aldats beheran</b> , ziztu bizian.	32
<b>alfergura mortala eragin</b> zeharo gogaitu, jasanezin gertatu	...aitaren itaunketa kontu-eskatzaile honek ere semeari <b>alfergura mortala eragiten</b> dion moduan.	6
<b>algara</b> barre handia, karkara	Chantal espantuka hasi zen eta antzeko zerbaite antzetzutu zuen Joxemik, biak <b>algaratik</b> gertu...	51
<b>amazulo</b> amatxo zalea, mizkea	—Mundua duen tipo bat izan nahi duzu... ala zer?, bakarrik etxekoa jaten dakien <b>amazulo</b> bat!	22
<b>amiñi</b> pixka bat	...baina Joxemi berehala konturatu zen —denbora <b>amiñi</b> zenbaezin batean— hitzik gabe jartzera...	125
<b>amorrarazi</b> sumindu	Aita <b>amorraraziko</b> zuena, noski, espainolen artetik euskaldunak ez bereiztea.	94
<b>anabasa</b> nahastea, nahaspila	...bai batzuen eta besteen janzkera eta tresnen artean eta baita batzuen eta besteen zango eta besoen artean ere, a ze <b>anabasa</b> ...	64
<b>anbiguo</b> bitarikoa, zalantzakoa	Jonani oso sentipen <b>anbiguo</b> a eragin zion aitaren dezepzioak, alde batetik semeak ez zuelako beste emakumerik nahi aitaren inguruan, noski...	85
<b>aratz</b> txukun	Orain garbi orain zikin, argi eta ilun, garden zein arre, <b>aratz</b> nahiz nahasi...	151
<b>are</b> gehiago, gainera	...ulergaitz eta, seguruenik, <b>are</b> , desatsegina, semea eta bera bezalakoa...	15
<b>arerio</b> aurkaria	Kalera irten orduko, ahaztua zuen aitak <b>arerio</b> a, pentsamendu bakar batekin irten zelako. Lehenbailehen Mireni deitu behar ziola dena eskertzeko...	35
<b>arestiko</b> duela gutxikoa, lehentxoagokoa	Beste modu posible bat <b>arestiko</b> guztia laburbiltzeko.	146
<b>aringarri</b> leungarria, onerako	...egongo zenez gero, <b>aringarri</b> ala larrigarri ote zitzaion beste neska adinkide haien ikuskizun ederra.	133
<b>arrapaladan</b> arin batean, ziztuan, atoan	Laburpen zuzen eta zehatza, Joxemiri oso <b>arrapaladan</b> atera zitzaiona.	126
<b>arre</b> beltzaska, iluna	Orain garbi orain zikin, argi eta ilun, garden zein <b>arre</b> , aratz nahiz nahasi...	151
<b>atontu</b> antolatu, ordenatu	Bederatzi minutu etxea <b>atontzen</b> eman zituzten, baina hamargarrena bete zenean...	149
<b>atximurkada</b> piltzikada, imurtxia	Ematen baitzion, pentsatzen zuen mutilak, gizon-gizon baten irudia, honako hau pentsatzean, gorputz barruan <b>atximurkada</b> moduko bat sentitzen zuela.	24




<b>aurpegiera</b> hazpegia, espresioa	...norberaren jatorrizko gorputz bereizgarri eta <b>aurpegierak</b> bestearengan lausotzeraino.	55
<b>aztoratu</b> asaldatu, larritu	Semea <b>aztoratzen</b> da aitaren ustezko iraina entzunda, alde batetik semeak ez baitu txartzat jotzen espainola izatea.	12
<b>badia</b> kostako gunea sartua eta babestua	— Itsasoa biziago egongo da uharteetan eta horregatik goaz babestuago dagoen <b>badia</b> moduko batera, kostaldean.	53
<b>baldar</b> trakets, dorpe	...semeak ez zekien horrela hitz egiten, askoz modu <b>baldarragoan</b> hitz egiten ohituta zegoelako...	23
<b>balizko</b> hipotetikoa, ustezkoa, alegiazko	Euskal Herrian, ordea, momentuz ez zegoen inongo batasunik indar politiko abertzaleen artean, ez <b>balizko</b> erreferendumaren beharrez...	92
<b>baranda</b> eskudela	Uretan murgil egin aurretik <b>barandan</b> eseri zen itzaroteko...	62
<b>baretsu</b> asko mugitzen ez dena	Gerard eta Chantal bikotearen itsasontzi txiki <b>baretsutik</b> ikusiz gero, pentsatu zuen Joxemik...	64
<b>barna</b> zehar, gaindi	...egokia beraz, pentsatzen du aitak, semea eta biak egiten ari diren bidaiarako, Ebro haran zabalean <b>barna</b> eta beherantz baitoaz, Mediterraneoan helburu.	10
<b>behatoki</b> begiralekua, talaia	Gainean, halako <b>behatoki</b> bat dago, Ampurda gehiena ikusteko.	120
<b>berpiztu</b> indar berritu, errekuperatu	Bat-batean Jonan <b>berpiztu</b> egin zelako eta ibiltzeari ekin zion berarengan ohikoa ez zen moduan, halako kulunkatze-dantza baten baitan bezala.	46
<b>besteen bizkar barre egin</b> besteak gutxiestea	...halako aldarte ahobero eta garrasizale bat, <b>besteen bizkar</b> ozenki barre egitea maite duela...	14
<b>bezpera</b> aurreko eguna	<b>Bezperako</b> neska agertu zen mostradorearen atzean.	46
<b>biharamun</b> hurrengo eguna	Berehala lokartu zen Jonan, <b>biharamuneko</b> snorkle egunaz ia pentsatu gabe.	114
<b>birjina</b> hasi gabea	Orduan, esan zitekeen sekula mozkortu gabe zegoela eta <b>birjina</b> zela alkohol kontuetan ere.	93
<b>bracketsak</b> hortzetarako aparatua	<b>Bracketsak</b> daramatza, duela urtebete.	6
<b>bukoliko</b> idealizatua eta polita	Meda uharteetako aterpetxo itxuraz <b>bukoliko</b> hartara ere...	101
<b>burrunba</b> urruma handia, zaratotsa	...hegazkinaren <b>burrunba</b> ikaragarria entzun zuenean aita jada oso goian zegoelako.	7
<b>burusoil</b> ilegabea	...garairik txarrenak ehuneko ehun <b>burusoila</b> izateko, hasiera batean NBAko saskibaloia jokalaria beltz lerdenei esker gertatuta.	65
<b>cool</b> egokia, kontrolatua	...garai postmodernootan haiek izan baitziren lehenak erabateko burusoiltasunari dotorezia <b>cool</b> bat ematen...	65
<b>damu</b> pena, garbaia	Pilulak eta sekretuak eta <b>damuak</b> eta Athleticeko jokalaria eta amaren begi orain seguruak...	28
<b>dardara</b> ikara, urduritasun keinua	Barre egin zuten gurasoek, barre sana, nahiz eta, bilatzen hasita, aurki zitekeen halako <b>dardaratxo</b> bat gizonaren eta emakumearen algara haietan...	73
<b>deman</b> lehian,	...eta emakumearen algara haietan, elkarren kontra <b>deman</b> nahasiak baitziren bataren eta bestearen seme eta alaba...	73
<b>ebatsi</b> lapurtu, ostu	...Joxemik argi eta garbi antzeman baitzuen zilarrezko distira bat, eguzkiak <b>ebatsia</b> semearen bracketsei.	54
<b>edangaitz</b> edan ezina	Mireneri deitu gabe jarraitzen zuen, konturatu zen gizona ur mineralez kafetera betetzen ari zen unean. Hain zen <b>edangaitza</b> iturrikoa!	44
<b>egoneza</b> ezinegona, urduritasuna	Tira, hobe dut lehenbailehen hemendik joatea, larritu zen, bere <b>egonezaren</b> erdigunetik, Jonanen aita.	106



<b>emozionante</b> pilpiragarria	...aita-semeentzako dena izaten ari baitzen <b>emozionantea</b> egun hartan, buzeroa ez ezik, ondoren ama-alaba holandarrekin partekatu zuten otordua...	71
<b>enbarazu egin</b> traba egin, oztopatu	Bitartean, itsasontziaren atzealde estu hartan, Jonanek ez zekien bere burua non kokatu besteei ere –Daeli– <b>enbarazu egin</b> gabe.	52
<b>epemuga</b> datara finko batera arte	Ez dakizu zenbateraino maite duzun, ez dakizu berarekin jarraitu nahi ote duzun <b>epemugarik</b> gabe, baina demagun oraintxe bertan...	64
<b>ernaldu</b> sortu	...semearengan ezinbestez <b>ernaltzen</b> joan litekeena, halako aldarte ahobero eta garrasizale bat...	14
<b>erraietan sentitu</b> barrua-barruan sentitu	Baina amaren begirada gogoratzen zuen semeak eta gauza zen <b>erraietan sentitzen</b> zuen atximurkada hari zaporea hartzeko eta guzti.	26
<b>erran gabe doa</b> ez dago esan beharrik	Semeak, <b>erran gabe doa</b> , musika erritmikoa nahiago du, elektronikoa ere bai...	10
<b>errefuxiatu</b> iheslari politikoa	<i>Gerra Txikia</i> eleberria, Hendaian bizi izandako <b>errefuxiatu</b> batzuen seme oreretar baten haurtzaroa, itxuraz oso autobiografikoa.	75
<b>errei</b> karrila	...autobideko <b>errei</b> nagusitik autoa atera zuen aitak restopean gelditzeko.	20
<b>erresumin</b> sumindura	...neska beltz kaskamotzaren irribarreak beste edozertarako tokirik, ez minarentzako, are gutxiago <b>erresuminarentzat</b> , utziko ez balio bezala.	150
<b>errieta jaso</b> bronka jaso	Semeak eskatu balu, <b>errieta jasoko</b> zuen, baina aitak eskatu zuenez...	75
<b>errola</b> erregistroa	...benetan sinesten duela tokiz kanpo izate horrek baduela jatorria bere izen ahaztua <b>errolan</b> apuntatu ez zuten egun hartan.	32
<b>erronka</b> desafioa	<b>Erronka</b> ez txikia Joxemirentzat, buzeroaren ariketa.	69
<b>esne-mamitan</b> mimo hutsean	Halako garrasi kolektibo bat, <b>esne-mamitan</b> hazitako belaunaldi oso batek...	144
<b>estereotipatu</b> molde jakin batekoa	...euskaldunengandik espero litekeen konbertsazio-ildo <b>estereotipatu</b> eta potentzialki gogaikarri batean erori gabe...	126
<b>estimatu</b> preziatu, gustatu	...gizen dauden pertsonen oso <b>estimatz</b> en duten jarduera delako, itsasoak erabat arin sentirazten ditu...	65
<b>exazolatu</b> arduragabea	Barrea eragiten dio aitari semearen erantzun <b>exazolatuak</b> .	6
<b>ezbaian</b> zalantzan, dudatan	...gizonaren eskuzabaltasuna <b>ezbaian</b> jarri izan balitz bezala Chantalen galdera haren bitartez.	56
<b>ezin salatariago</b> nabarmen-nabarmena	Andaluzian jaiotako lorezaina, ahoskera <b>ezin salatariagoaren</b> arabera.	89
<b>ezleku</b> toki desegokia	...Mireni deitu behar ziola dena eskertzeko [...] litekeena baitzen leku <b>ezleku</b> horietariko batean egotea, demagun Siria demagun Sierra Leona.	35
<b>eztenkada</b> ziztada	Bai?, galdetu zuen mutilak, harridura aurpegian bat-batean ume bat agertuta, aitari barrenean min <b>eztenkada</b> eragin zion bisioa.	139
<b>gailu</b> tresna, tramankulu	...eta baita esku bakoitza gailu banatan ez ezik oin bakoitza garai banatan, iraganean eta etorkizunean...	80
<b>GAL</b> talde terrorista espainiarra	<b>GAL</b> garaia da, zelatan daude mertzenarioak, eta laster gertatuko dira atentatuak...	116
<b>ganorazko</b> fundamentuzkoa	Gizonari momentuz ez zitzaion ezer <b>ganorazkorik</b> bururatzen.	139
<b>garbi haize</b> Hego-ekialdetik datozen haizeak	...plazeragatik ez ezik, <b>garbi haizeak</b> altxatutako olatuek itzultzera bidaiari denei nahastutako sabelak berdintzeko.	71
<b>gatibu</b> preso	Joxemi inoiz baino <b>gatibuago</b> sentiarazi zuten, itxuraz amodioa libre adierazten ari zen hondartza ez erabat bakarti hartan.	106




<b>gertu</b> hurbil	Chantal espantuka hasi zen eta antzeko zerbait antzestu zuen Joxemik, biak algaratik <b>gertu</b> ...	51
<b>glaziar</b> hotza, pertsona ezin serioagoa	Montserrat <b>glaziarrak</b> maiz esaten du asko kostatzen zaiola bere tokia aurkitzea bizitzan, barrezka esan ere...	32
<b>gogaikarri</b> aspergarria, ernegatzekoa	...euskaldunengandik espero litekeen konbertsazio-ildo estereotipatu eta potentzialki <b>gogaikarri</b> batean erori gabe...	126
<b>gogaitu</b> aspertu	...musikaren kaltetan publizitateak hartzen duen tokiaz mutila bera <b>gogaituta</b> itxuraz...	17
<b>goragale</b> botagura, oka egiteko gogoia	<b>Goragale</b> arin bat sentitu zuen semeak barrenean...	22
<b>grina</b> irrika, gogo bizia	...ez zuen inongo gogorik erakusten ez futboleant aritzeko ez eta futbolaz jakiteko ere, baina animalianganako <b>grina</b> hura desegiten hasiko zitzaion...	10
<b>hankalatraba</b> hankak alde banatara eserita bez	...terrazako hesiaren gaintetik <b>hankalatraba</b> pasa, lorategiko belar gainean hamar metro ibili... eta plasttt!	34
<b>har</b> kokoa, zizarea	Barruan zebilzkion <b>harrak</b> , hain kontrajarriak, gertuko norbaiti adierazi.	86
<b>harroxko</b> hanpatua, besteak gutxiestekoa	Irribarre <b>harroxko</b> batekin begiratzen dio aitak semeari, esanez bezala: "Azken momentura arte luzatu naiz bilaketan..."	10
<b>hegaluze</b> atuna, arrain mota	Ongi... badakit non erosi <b>hegaluze</b> bikaina...	89
<b>hirutasun</b> trinitatea, hiruko eredugarria	Baina baita Daelen azal-haragi-hezur <b>hirutasun</b> miragarri gura sentitu nahian ere modu bateratuan.	101
<b>hitz-totel</b> errepikatuz mintzatzen dena	...ikasgelako lagun batzuek waxapean antolatutako txat bat, ikaskide <b>hitz-totel</b> bat iraintzeko.	20
<b>hitzontzi</b> berritsua, berbalapikoa	Bitartean, a ze <b>hitzontzi</b> puska, berbetan jarraitzen zuen lorezain itxuraz andaluziarrak.	90
<b>hizpide</b> hizketa gaia	Laboa oso kantu zahar horietariko bat abesten ari denean, batez ere ama, amaren bat <b>hizpide</b> duten kantuak, adibidez "Ama" deitzen dena...	11
<b>horixe baietz</b> noski, jakina	...baina haietariko guztien bitartez, <b>horixe baietz</b> , izan zuen mutilak neskaren presentziaren oihartzuna eta oso gustura sentitu zen.	118
<b>igarri</b> nabaritu	Berehala <b>igarri</b> zen zerbait ez zihoala ongi.	128
<b>igurtzika</b> laztanak eta ukituak egiten	...eta elkarri <b>igurtzika</b> eta musuka dabilen bikote gazterik gabe!	105
<b>ildo</b> lerroa	Arestiko hiru hitzak esan ostean, izugarri animatu zen gizona, konbertsazio <b>ildo</b> bat aurkitu zuelakoan...	124
<b>iltzatuago</b> finkatuago, ondo txertatuta	...bigarrenengo honetan sexuari lotua agertu bada ere, ea horrela <b>iltzatuago</b> geratzen zaizuen...	95
<b>indarge</b> ahul	...agian begien aurrean lokaturik eta <b>indarge</b> eta ahul eta babesgabe eta maitagarri ageri zitzaiolako aita bera.	117
<b>inmertsio</b> murgilaldia	Apur bat luzatu dugu <b>inmertsioa</b> , esan behar zion Chantalek geroago...	67
<b>inozo</b> ergela, inuzentea	Aita ez da <b>inozoa</b> , dena den. Badaki zein den egoera eta baita zen zaila izango den hori buelta ematea Bilbo aldean.	13
<b>insomnio</b> lo egin ezina	Nerbioak, antsietatea, <b>insomnioa</b> , traumak, arnasketa naturalaren erritmoa galdu...	69
<b>iradoki</b> sujeritu, aditzera eman	...koreografia orekatzaile hartan berdinduko balira bezala –Joxemiri bururatu zitzaion, bere iraganak <b>iradokita</b> –...	86
<b>iragarri</b> anuntziatu, parte eman	— Bai, uste dut baietz, libre dugula... baina goizean goiz joan beharko genuke, gero, arratsalderako, haizea <b>iragarrita</b> dagoelako.	37




<b>irain</b> ofentsa	Semea aztoratzen da aitaren ustezko <b>iraina</b> entzunda, alde batetik semeak ez baitu txartzat jotzen espainola izatea.	12
<b>iratzarri</b> esnatu, itzartu	Loak erabat harrapatzekoan zela, ordea, autoak nabarmen frenatu du eta mutila <b>iratzarri</b> egin da segundo batez, gero bai, lo seko gelditu bada ere.	28
<b>irmotasun</b> sendotasuna, ziurtasuna	Arestiko hitzok <b>irmotasun</b> moduko bati heldu nahian bota zituen semeak, nahiz eta tristezia ezkutaezin batez.	142
<b>isolatu</b> bakartu	Meda uharteek ematen zuten aterpe edo erresuma txiki, <b>isolatu</b> eta pribatu moduko hartara, non ez bakarrik lotsa joan zizaion.	100
<b>itaunketa</b> galdeketa	...aitaren <b>itaunketa</b> kontu-eskatzaile honek ere semeari alfergura mortala eragiten dion moduan.	6
<b>itolarrian erori</b> arnasa barik geratu, ito beharrea	Arnasa hartu eta arnasa bota; oharkabe egiten dugun ariketa hori, modu kontziente batean egin nahi... eta <b>itolarrian erori</b> , itsaso barruan nola.	69
<b>izpitxo</b> zantzu txikia, keinutxo	Barre <b>izpitxo</b> bat erdi-azaldu zen semearen masailetan.	39
<b>janari nazkar</b> azkarra eta nazkagarria	...behin batean aitak " <b>janari nazkarra</b> " bataiatu zuena, semearengan inolako txinparta idiomatikorik eragin gabe.	41
<b>jatun erraza izan</b> gogotsu jaten dutenetakoa izan	Semea <b>ez zen jatun erraza</b> , ez zuelako enbutidoa gustuko eta honek ikaragarri zailtzen zuen ogitartekoa aukeratzeko garaia.	21
<b>jomugan hartu</b> ituan jarri, diana bihurtu	...itxuraz bereziki disfrutatzen zutenak, edozerengatik ahuleziaren bat erakusten zuten gainerako neska-mutilak <b>jomugan hartuta</b> .	28
<b>jostarin</b> olgetuna, bizia	...eta gogo <b>jostarin</b> horrekin bereizi zituen piszinaren inguruan eta barruan zeuden bainulari guztiak, emakume zein gizon...	118
<b>kalapita</b> liskarra	...bien arteko <b>kalapita</b> sortzea segurutzat jotzen zuelako.	23
<b>karpeto-betonismo</b> espainoltasunaren ultradefentsa	Tira, ez ote naiz pasatzen ariko... nonahi <b>karpeto-betonismoa</b> ikustean, dio aitak bere buruarentzat...	14
<b>kaskamotz</b> ilea motz-motz ebakita	...neska beltzaran kaskamotzaren irribarreak beste edozertarako tokirik, ez minarentzako, are gutxiago erresuminarentzako...	150
<b>katebegi</b> katearen uztai bakoitza	Lehen <b>katebegia</b> Jonan izan zen eta Dael bigarrena, gero haren ama zetorren eta gero Joxemi.	52
<b>katramilatu</b> endredatu, korapilatu	...sekula-sekulorum ez zirela seme-alaben bihotz kontuetan <b>katramilatuko</b> , jakina, baina garaiak...	138
<b>kemen</b> adorea, ausardia	Hala ere, <b>kemen</b> berrituaz ekin zion uda-goizari, ondoko terrazatik zetorren kantuak zazpigarren aldiz lagunduta	148
<b>kitzikagarri</b> ernagarria, bizigarria	Bestalde, <b>kitzikagarria</b> zitzaion –nahiz eta aurrekoarekiko askoz maila apalago batean– Luusen agerpena.	86
<b>kokote</b> lepondoa, garondoa	...emakume beltzaranaren <b>kokotean</b> galdu zen Joxemi...	50
<b>komeriak izan</b> gorabeherak	<b>Komeriak izango</b> ditugu semeak jateko, ziotson aitak bere buruari apartamenturako bidean.	38
<b>konkortu</b> lepo okerra, makurtzen hasia	...bakoitza garai banatan, iraganean eta etorkizunean, zituzten bezalako gizon <b>konkortu</b> hasi berriek behar zutela izan munduko tiporik interesgarrienak ere?	80
<b>konkortu</b> okertua, makurtzen hasia	...zituzten bera bezalako gizon <b>konkortu</b> hasi berriek behar zutela izan munduko tiporik interesgarrienak ere?	80
<b>kortesia</b> gizabidea, jendetasuna	...Joxemik egin beharreko deia – <b>kortesia</b> araurik oinarrizkoenak agintzen duten bezala–...	74
<b>kraskatu</b> hautsi	" <i>Gaztea jartzeko!</i> ", eskatu zuen semeak ozenki, eta <b>kraskatu</b> zitzaion hamabost urte berrikoen ahots hori.	5
<b>kulunka</b> balantzaka, aldaroka	Bat-batean Jonan berpiztu egin zelako eta ibiltzeari ekin zion berarengan ohikoa ez zen moduan, halako <b>kulunkatze</b> -dantza baten baitan bezala.	46






<b>kurdu</b> Ekialde Ertaineko etnia bat	<b>Kurduentzat</b> eta euskaldunentzat... mendiak dira lagun bakarrak.	66
<b>kutsu</b> arrastoa, eitea	...sexua eta alkohola esaldi bereborean joanez gero inkesta <b>kutsua</b> hartzen zuelako galdera...	94
<b>langa</b> trabesa	<b>Langa</b> gainetik egin zuen salto, estilo handiz.	151
<b>lausotu</b> difuminatu, zehaztugabe bihurtu	...norberaren jatorrizko gorputz bereizgarri eta aurpegierak bestearengan <b>lausotzeraino</b> .	55
<b>lautada</b> ordokia, lur eremu irekia	Ampurdáko itxurazko <b>lautada</b> nahiz egiatzko ez lautada are zabalago...	120
<b>laxatu</b> erlaxazioa	Itsaso zabalak bien gorputzetan, urteekin, halako <b>laxatze</b> bateratzaile bat eragin balu bezala...	55
<b>leihatila</b> leihotxo	Semea <b>leihatilatik</b> begira jarri da, baina aita konturatu da mutikoa ez dagoela Moncayo aldera begira...	7
<b>lemazain</b> ontzi-gidaria	Gerard <b>lemazainaren</b> atzean kokatuko ziren denak, emaztearen eta senarraren artean txikotak askatu ostean.	52
<b>leporatu</b> egotzi	Semeari inoiz <b>leporatutako</b> portaera-eredu-jaso baten falta bereborean ote zegoen aita bera?	56
<b>lerden</b> dotorea, <i>katxarroa</i>	...hasiera batean NBAko saskibaloi jokalaria beltz <b>lerdenei</b> esker gertatua, garai postmodernootan haiek izan baitziren lehenak...	65
<b>liatu</b> prestatu	Gerard zigarro bat <b>liatzen</b> hasi zen.	59
<b>lilura</b> erakarpena	...eragiten zion <b>lilura</b> , arrazakeriatik zerbait izan bazezakeen ere, ezin erreprimিতা...	122
<b>lizun</b> sexuzkoa, sentsuala	...baina bat-batean gizona bera harritu da, ai ene, bururatu zaionak hartu duen haragitasun nolabait <b>lizunaz</b> .	42
<b>malenkoniatsu</b> tristurazkoa, goibela	Joxemi apur bat triste zegoen, <b>malenkoniatsu</b> , oroimin-zale...	105
<b>marasma</b> kaosa, nahasmendua	...gazteen betetasun eta ahalmena, gorputz gazteen arteko jolas neurtua, non eta airean marrazten baitziren, mugimenduen <b>marasma</b> ikusezin bat osatuz...	86
<b>mardul</b> betea, mamitsua	...aitak ez ditu oraindik ahaztu filmean behin eta berriro erakusten ziren neska gaztearen titi <b>mardulak</b> .	16
<b>marruma</b> orroa, kexuzko oihua	Nork ekarria: gau epelak, itsasoak, olatu txikien nahiz etengabeen <b>marrumak</b> ?	107
<b>matraka</b> errieta, haserrealdia, <i>bronka</i>	Aitare azken <b>matraka</b> luze, mamitsu eta benetan gogorra beste zerbaitengatik etorri zen orduan...	20
<b>mehatxupean</b> zerbaiten eraso arriskuan	Joanek ez zekien ezer horretaz, zer den horrelako etxe batean haztea, gauero <b>mehatxupean</b> , gurasoetako batek gehiegi edaten duelako.	77
<b>menturaz</b> agian, beharbada, apika	Poema interesgarriago eta <b>menturaz</b> sakonago baterako lehen urrats posiblea...	107
<b>mesfidantza</b> fidagaiztasun	Aitarengan <b>mesfidantza</b> adierazten zuen begirada ilun batekin.	135
<b>miazkatu</b> milikatu, txupatu	...ortozik eta arraintxo <b>miazkatzaileen</b> artean harrapaturik, egiatan sentitzen zuena arraintxoekin ostikoka hasteko gogoia baitzen.	96
<b>mintzo zen</b> hitz egiten ari zen	Euskaldunengatik espainolez <b>mintzo zen</b> instruktorea Katalunia independentean.	49
<b>miragarri</b> harrigarria, txunditzekoa	Baina baita Daalen azal-haragi-hezur hirutasun <b>miragarri</b> gura sentitu nahian ere modu bateratuan.	101
<b>murgil egin</b> must egin, urpera salto egin	Uretan <b>murgil egin</b> aurretik barandan eseri zen itxaroteko...	62




<b>neopreno</b> goma sintetikoa, murgilarientzat	Gerardek aingura bota zuen eta besteak hasi ziren nor bere <b>neoprenoa</b> eskuetan hartzen.	54
<b>ño</b> kontxo, hara	<b>No</b> , zirudien baino hobeto entrenatuta zegoen mutila, pentsatu zuen aitak, pozik eta harro semearen erakustaldi fisiko haren aurrean.	80
<b>oharkabe pasatu</b> nabarmendu gabe	...jendeari eta gauzei begira ibiliko bazen ere, nolabait <b>oharkabe pasatzea</b> , taberna betetzen ari zen...	24
<b>ohitu</b> ohitura hartu	Jonan ez zegoen batere <b>ohituta</b> , eskolan agindutakoaz kanpo, euskaraz irakurtzen.	116
<b>oihartzuna izan</b> haren berri izan, harekin ohartu	...baina haietariko guztien bitartez, horixe baietz, <b>izan</b> zuen mutilak neskaren presentziaren <b>oihartzuna</b> eta oso gustura sentitu zen.	118
<b>okaztagarri</b> goragale ematen duena	Helduengandik gazteengana bideratutako ia guztien antzekoa, beraz eta, ondorioz, goiz edo berandu <b>okaztagarri</b> egiten ahal zaizuen.	95
<b>olde</b> piloa, multzoa	Giro handia zegoen, turistez gainezka. Agian jende <b>olde</b> hartan ibiliko ziren Luus eta Dael ere.	83
<b>omenez</b> goresteko	Behatokiaren izena Pla da, Josep Pla idazlearen <b>omenez</b> .	120
<b>onbeharrez</b> onerako	...Daelek eta aitak Jonanen <b>onbeharrez</b> egindako mugimendu oztopatzaileak izan zirelako...	108
<b>orban</b> mantxa, zetaka	Kostaldean bertan hasi eta Amazoniako bihotzerantz zabaltzen den gune berde bakarra eta ia <b>orbanik</b> gabea...	78
<b>ordainetan</b> trukean	Mutilak ere azalpenak eman beharko zituela, <b>ordainetan</b> , bere amari buruz...	99
<b>oreretar</b> Errenteriakoa (Orereta)	...Hendaian bizi izandako errefuxiatu batzuen seme <b>oreretar</b> baten haurtzaroa...	77
<b>oroimin-zale</b> nostalgiko, iragana gogoratzen	Joxemi apur bat triste zegoen, malenkoniatsu, <b>oroimin-zale</b> ...	105
<b>ortozik</b> oinutsik	... <b>ortozik</b> eta arraintxo miazkatzaileen artean harrapaturik, egiatan sentitzen zuena arraintxoekin ostikoka hasteko gogoia baitzen.	96
<b>partekatu</b> konpartitu	...aita-semeentzako dena izaten ari baitzen emozionantea egun hartan, buzeoa ez ezik, ondoren ama-alaba holandarrekin <b>partekatu</b> zuten otordua...	71
<b>patxadaz</b> lasai, astitsu	Baina biharamunean asko disfrutatu zuen, hasteko terrazan aitak eta biek, <b>patxadaz</b> gosaltzea...	114
<b>pekatsu</b> orintsu	Gerard, itsasontziko kapitaina zen, Chantal emakume <b>pekatsuaren</b> senarra beraz.	48
<b>penitentzia</b> zigor	...inguruko kobazulo batean hasi zela ordura arte gerlari izanikoaren pobrezia, otoitz eta <b>penitentziatzko</b> bizimodua.	32
<b>penitentzia</b> otoitz egitea	Inguruko kobazulo batean hasi zela ordura arte gerlari izanikoaren pobrezia, otoitz eta <b>penitentziatzko</b> bizimodua	32
<b>peto</b> jator-jatorra, bertakoa	...deustuar <b>peto</b> askorentzat Deustu izatea Bilbo barruko auzo bat baino askoz gehiago,...	125
<b>pitzatu</b> arraildu, zartatu	...baina Daelek buelta erdi eman zuen eta aurpegian ezagun zitzaion postal hark bestelako zerbait <b>pitzarazten</b> ziola barnean.	104
<b>potenzialki</b> molde jakin batekoa	...euskaldunengandik espero litekeen konbertsazio-ildo estereotipatu eta <b>potenzialki</b> gogaikarri batean erori gabe...	126
<b>preseski</b> hain zuzen	...duela urtebete gertatuko zen, ez <b>preseski</b> sexuaz, aitak uste duenaren alderantziz, semea jada behin baino gehiagotan proba eginda zegoelako...	20
<b>probestu</b> baliatu, erabili	Beraz, aprobeixatu eta <b>probestu</b> eta profitatu beharra sentitzen zuen Joxemik...	126
<b>profitatu</b> baliatu	Beraz, aprobeixatu eta probestu eta <b>profitatu</b> beharra sentitzen zuen Joxemik...	126





<b>restop</b> atsedengunea	Laster, <b>restopean</b> geldituko gara zerbait jateko, ok?	15
<b>sabela berdindu</b> ase, gosea kendu	...plazeragatik ez ezik, garbi haizeak altxatutako olatuek itzultzera bidaiari denei nahastutako <b>sabelak berdintzeko</b> .	71
<b>saihesbide</b> ingurabidea	40 Principales entzuten ari dira aita- semeak Zaragozako <b>saihesbidea</b> hartu duten uanean.	13
<b>saldoka</b> talde edo multzo handietan	Bat-batean, arrainak. Bakarka nahiz <b>saldoka</b> . Denean gora eta beheara. Mediterraneoko arrain biziak.	69
<b>sama</b> eztarria	...malenkoniaz eta oroimenez gainezkako ikuskizuna, tarteka <b>samaraino</b> igotzen bazitzaion ere ezin kontrolatuzko negar-gogo ulertezin moduko bat...	85
<b>sekula santan</b> inoiz ez, egundo	Une ezin laburrago batez, gogoratu zuen tankera honetako eginkizunetarako Josemiel txikiak <b>sekula santan</b> izan ez zuen aita...	138
<b>sentibera</b> bihozbera	Jonan semea ez zegoen hain <b>sentibera</b> itsasontzi azpitik zetorrenarekiko...	52
<b>snorkle</b> uretako kirola	Berehala lokartu zen Jonan, biharamuneko <b>snorkle</b> egunaz ia pentsatu gabe.	114
<b>soildu</b> hustu	...arinduta sentitzen baitzen gizona bere burua erabat <b>soildu</b> ondoren, haiek ez baitziren –esaten zion gainera bere buruari– garairik txarrenak...	65
<b>soilgune</b> hutsunea	Sateliteak harrapatzen ez baditu ere, inoiz halako <b>soilguneak</b> zabaltzen dira trinkotasunaren barruan.	79
<b>soseguz</b> lasai, patxadaz	Eta esan bezala aitarenean Jonanek antzematen zuen atsekabetasun zehaztugabe bat, nahiz eta <b>soseguz</b> gobernatua bezala...	118
<b>sotil</b> amarrutsua, azeria	...Dael modu <b>sotilean</b> , nahiz eta nahikoan, konturatu baitzen ondoan zuen mutilaren nortasun agian ez azalekoaz.	98
<b>surinamdar</b> Surinam herrialdekoa	...jakin gabe zer nolako erantzuna etorriko zen <b>surinamdar</b> jatorriko emakume beltz holandar-katalan harengandik.	120
<b>sutsu</b> suminduta	Kitto, hain mintzatu zen Dael modu <b>sutsuan</b> , non inork ez baitzion, ezta amak ere, bestelakorik erantzun...	62
<b>tankera</b> moldea, eitea	Aja, esan zuen Joxerik, mezua jaso balu bezala ez zeukala zertan jarraitu beharrik <b>tankera</b> bereko galdera gehiagorekin.	51
<b>tematuta</b> egoskortuta	Grazia egiten zion semeari kuadrilla gazte hura kantu bakar batekin hain <b>tematuta</b> egoteak, nerabezaroan hain ohikoa izaten bada ere...	143
<b>tentaturik egon</b> ausartzekotan egon, egitekotan	Daalen erantzunean bestelakorik adierazten bazen ere, bere aitari buruz galdetzeko <b>tentaturik egon</b> zen Jonan, baina isildu zen.	99
<b>terral</b> lehor-haize	Jonanek ez baitzekien garbi haizea berez <b>terrala</b> denik, lurrekoa.	111
<b>tinko</b> sendo, irmo	Ez zion ezer galdetu kapitainari, baina <b>tinko</b> begiratzen hasi zitzaionez, azkenean “oraintxe bertan datoz” esan zuen Gerardek...	67
<b>tipo</b> morroia	...bera bezalako gizon konkortsu hasi berriek behar zutela izan munduko <b>tiporik</b> interesgarrienak ere?	80
<b>tirabira</b> tentsioa	...oraindik <b>tirabira</b> batzuk sortzen ari direlako Espainiatik datozen bidaiari zenbaitekin...	12
<b>to</b> hara, ene	Erantzunik ez semearen aldetik, baina <b>to</b> , momentuz ez du begirada aldendu...	8
<b>trikimailu</b> engainua, azpikeria	Norberaren zamaz ahazteko <b>trikimailuak</b> ...	65
<b>txikot</b> itsasontzia lotzeko soka	Gerard lemazainaren atzean kokatuko ziren denak, emaztearen eta senarraren artean <b>txikotak</b> askatu ostean.	52
<b>txingurrituta</b> kalanbrea hartuta	...maletak gurgildunak izan arren eraikina aurkitzerako biek besoak apur bat <b>txingurrituta</b> zeuzkaten-eta.	33



<b>txinparta idiomatiko</b> hizkuntzarekiko interesa	...behin bateak aitak "janari nazkarra" bataiatu zuena, semearengan inolako <b>txinparta idiomatikorik</b> eragin gabe.	41
<b>txirikordatu</b> trentzatu	Ile motz-motza zeukan, ia-ia inexistentea, halere hainbat lerrotan <b>txirikordatua</b> .	85
<b>ufada</b> putzaldia, haize kolpea	Hitzik behar ez duen pentsamenduak, nahikoa zaizulako haize harroaren <b>ufada</b> goxo bat, inoiz baino goxoago...	111
<b>urrats</b> pausoa	...balizko amodio berri baterako gogo hutsa jaiotze berri baterako lehen <b>urrats</b> benetan eraginkorra balitz bezala...	105
<b>urrituta</b> eskastuta, gutxituta	Kaleratzeak ere izan dira tarte berean, eta enpresa orain oso <b>urrituta</b> dago jendez.	14
<b>usu</b> maiz, sarri	<b>Usu</b> ixten zitzaizkion sudur zuloak eta ahoa zabaltzea eragiten zion mutilari.	45
<b>utikan</b> ospa, kanpora	Terraza eta hamaka banakan etzanda, <b>utikan</b> gailu elektronikoak!	75
<b>xalotasun</b> izaera garbi, malezia bakoa	...haur izatearen <b>xalotasunak</b> , ordea, munduari begiratzeko aldarte berezia ematen dio xabi txikiari...	116
<b>xelebre</b> bitxia, txistoso	Tira, bai, ondo dago, erantzun zuen semeak aitaren ateraldi <b>xelebrea</b> ondo hartuta, egunotan mutilarengan zabalduko heldutasun berri horretatik...	146
<b>zakarkeria</b> jokaera latza	Euskaldunen gaineko topiko horiek egia baldin badira, itxura bateko <b>zakarkeria</b> honen ostean, laster ikusiko da berezko dugun kortesia...	56
<b>zantzu</b> arrastoa, seinalea	...inongo urduritasun <b>zantzurik</b> gabe agertu gabe.	67
<b>zekusana</b> ikusten ari zena	Mutila atsekabeturik, aita <b>zekusana</b> .	129
<b>zeru-goietan</b> han goian	...hegazkin militarra sartzen ez uzteko prest, zeru-goietan den futbol zelai bateko atezaina bailitzan?	9
<b>ziztrin</b> eskasa	Dael ez al zen gauza Jonanekin harremanetan jartzeko mezu <b>ziztrin</b> edo behintzat emotikono batzuen bitartez?	147
<b>zori</b> patua, zortea	...baina gizonak ez daki <b>zoria</b> bere alde jarriko dela berehala.	8
<b>zurbil</b> kolorgea	Joxemi bezalako gizon zuri- <b>zurbil</b> ugarirentzat guztiz mesedegarria...	65